HAIZAK HI MUTIL MAINONTZI



Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869
Errenteria, Gipuzkoa)

Bizente Retegi
Musarro (1838 Oiartzun –
1919 Errenteria, Gipuzkoa).

Doinua: Aresoarren bandera
Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa.
Testuaren iturria:
Antonio Zavala. 1969. Xenpelar bertsolaria. Auspoa. 141 or.

Errenteriako Ehun (edo oihal) Fabrika Handian egin zuten lan, garai ezberdinetan, 4 bertsolari ezagunek: Xenpelar sendiko hiru bertsolarik (Juan Frantzisko eta Maria Luisa neba-arrebek eta Joxepa Anttonik, Maria Luisaren alabak) eta Musarrok. Lauek ere fabrikan bertsotan jarduten zuten, umorea eta festa jarriz.

Bertsoaldi hau bi lagun minen artean gertatu zen: Juan Frantzisko Xenpelar eta Musarro. Biak ere euleak ziren fabrikan. Erretzea debekaturik zegoen; Musarro komunean pipa erretzen ari zen batean, Xenpelar kargu hartzen hasi zaio, adar-jotzen, enkargatu paperak eginez.

Xenpelar

Haizak hi, mutil **mainontzi***
nagusiari **goraintzi**
ez al hakiken hor pipa hartzia
ez zela **lizentzi**?
Jenio txar hoiek **utzi**
bestela hezurrak **hautsi**
gizalegia nola behar dan
ezin **erakutsi**!

Musarro

Nik badet **gizalegia**
Prantxiskuk baino **hobia**
beste tatxarik ez zait aurkitzen:
arlote **pobria**
nik jeniua **noblia**
kortesi **paregabia**
neri hezurrak hausteko nun dek
abilidadia?

* ***mainontzi*** = *gastatua*

Xenpelar

Ziri bat sartu dit **neri**
orain bestia **berari**
abilidade gutxi duela
ez esan **inori**
azala dadukak **lodi**
mamirik ez duk **ageri**
hezur igarra hausten zaila duk
bazekiat **hori**.

Musarro

Kunplitzik nere **ordenak**
ez dik kalterik **barrenak**
bestela parra egingo ditek
aditzen **daudenak**
hik nundik dauzkak **kemenak**
menderatzeko **gailenak**?
hezur igarrak hautsitzen dizkik
indarra **duenak**.

Xenpelar

Gaztelania **geroko**
ardua **berihalako**
nagusiari ejenplo onik
ez diok **parako**
gogua daukak **harako**
paraje ona **dalako**
eskola dezu txikiegia
tertuliarako.

Musarro

Arrazoi txarra **abian**
dezu seitatik **labian**
egongo zera errespuesta
aditu **nahian**
gabero nabil **galdian**
ikusi nahi nau **aldian**
zuk baino hobeki ematen det nik
hango **sukaldian**.

Xenpelar

Ardo guzien **jueza**
maiz erateko **promesa**
ofiziale ederra zera
irudi **inglesa**
zertako daukak **grandeza**?
Txikia ikusi nahi **eza**
yo buen hombre, usted no vale
hermoso **cabeza***.

* ***yo buen hombre, usted no vale hermoso cabeza*** =
ni gizon ona, berorrek ez du balio, buru handia!

Fabrikan bertsotan

Entzuten zeudenek bertsoak gogoan hartu, buruz ikasi eta gerora idatziz jaso ziren aleak dira gaur ezagutzen ditugunak (gehiago ere botako zituzten akaso). Zehazki, Juan Frantzisko Xenpelarren ilobak, Joxepa Anttoni bertsolariak, etxean zituen eskuz idatzitako paper batean zazpi bertso hauek.

Musarro ez omen zen gauza Xenpelarri bat-batetan erantzuteko; etxera joan, patxadaz pentsatu eta biharamunean kantatzen zion erantzuna. Xenpelarrek bat-batean erantzun eta Musarro ostera etxera pentsatzera... Honela egin omen zuten.

Elkarrekiko maitasuna, pentsa noraino...

Juan Frantzisko Xenpelar baztangak kutsatuta zegoela, hilzori, berekin etxean giltzaperatu zen Maria Luisa arreba bertsolaria. Maria Luisa haurdun zegoen eta lau urteko alaba txikia (Joxepa Anttoni) aitarekin utzi zuen, Juan Frantzisko zaintzeko.

Baztanga hilgarria eta kutsakorra izanik, erabat debekatuta zegoen gaixoen etxera sartzea. Gau batean Musarro adiskide mina etxera azaldu zitzaien, isilka eta ezkutuan, bisitan.

Azkenean baztangaz hil ziren etxe hartako denak: lehenik Juan Frantzisko, ondoren Maria Luisaren haurtxo jaioberria, eta azkenik Maria Luisa.

Joxepa Anttoni txikiak lau urterekin galdu zituen ama bertsolaria eta osaba bertsolaria; ez zuen aukerarik izan ama eta osaba fabrikan elkarri bertsotan ikusteko. Baina handitzean, Joxepa Anttoni bera ere Fabrika Handian ariko zen bertsotan (nahiz errespuesta emateko lagunik ez izan), eta berak jasotako paperei esker ezagutuko ziren gerora osaba Juan Frantziskoren hainbat bertso...

